

SANTURTZI
udala - ayuntamiento



ADIKZIOAK PREBENITZEKO TOKIKO PLANA 2024-2027

GIZARTE EKINTZA ETA BERDINTASUN ARLOA

ADIKZIOAK PREBENITZEKO ZERBITZUA

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA.....	2
1. SARRRERA.....	3
2. ARAU- ETA ESKUMEN-ESPARRUA	4
3. KONTZEPTU-ESPARRUA ETA JARDUTEKO PRINTZPIOAK	7
4. EGOERAREN DIAGNOSTIKOA	10
4.1.- 2021-2023ko PLANAREN EBALUAZIOA.....	100
4.2.- SANTURTZIKO NERABEEI DAGOKIENEZ, TABAKOAREN, ALKOHOLAREN ETA KALAMUAREN KONTSUMOEI ETA TEKNOLOGIEN ERABILERARI BURUZKO AZTERLANAREN DATUAK.....	13
4.3.- HERRIKO UDAL, HEZKUNTZA, GIZARTE ETA OSASUN ARLOETAKO KIDEEN IRITZI ETA EKARPENAK	24
5. EKINTZEN PLANIFIKAZIOA 2024-2027	288
6. PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	377

1. SARRERA

Adikzioena faktore anitzeko fenomeno da, aldakorra eta jatorri askotakoa. Izan ere, azken urteotan, substantzien eta adikzioen inguruan kontsumo-eredu eta modu berriak ditugu, hala nola teknologia, online jokoak, kirol-apustuak... Horiek prebentziorako ekintzak behar eta arazo horietara egokitzea eskatzen digute.

Horretarako, ezinbestekoa da diagnostikoa gertu-gertutik egitea, eta hori dela-eta, aurreko planetan egin bezala, martxan jarri dugu parte-hartze prozesu bat, non udalerriko hezkuntza-zentroek eta horien guraso elkarteek, kultura-, kirol- eta prebentzio-elkarteek, osasun arloko langileek eta udal arlo guztiek izan duten tokia. Izan ere, substantziadun eta substantziarik gabeko beste adikzio batzuen kontsumoari eta abusuari aurre egiteko iritzia eman digute, bai eta horiei lotutako arriskuei ere. Gure nerabeen artean teknologien kontsumoez eta erabileraz egin dugun inkestek emandako informazioa ere izan dugu esku artean.

Oraingo plan hau aurrekoaren ildo berean dago eginda, non prebentzioa jorratzea norberaren ardura aintzat hartzetik haratago doa, faktore pertsonalak eta ingurumenekoak ere kontuan hartzen dituelako. Kontsumoen normalizazioa eta arinkeriaz tratatzea, alkoholaren erabilera soziala eta adin txikikoek alkohola lortzeko duten erraztasuna, botikak erabiltzea ondoez emozionala konpontzeko... horiek eta beste batzuek ezinbestez dakarte pertzepzioa aldaraziko duten ekintzak egitea.

Horiek horrela, aurreko planean kanpaina bat jarri genuen abian, zeinaren bitartez kerik gabeko espazio publikoak ezarri genituen tabakoaren erabilera nolabait “desnormalizatu” eta, inor konbentzitzen saiatu gabe, erabaki osasungarriak hartzea ahalbideratzeko.

Plan berriak, **2024ko apirilaren 9ko Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiz onetsia**, bizitza osasungarriaren alde ahalegin handiagoa egiteko konpromisoa jasotzen du modu integralean eta osasunaren sustapenean eta adikzioen prebentzioan lanean ari diren eragile, entitate eta erakundeekin koordinatuta.

Azkenik, plana egiten aritu diren guztiei esker ona adierazi nahi diet, espero dut lankidetzan jarraitzea herritar guztien osasuna hobetzeko aurrera pausuak emateko.

Ixone Andreu

Gizarte Ekintza eta Berdintasun zinegotzia

2. ARAU- ETA ESKUMEN-ESPARRUA

2016/1 Legeak, apirilaren 7koak, Adikzioen eta Droga Mendekotasunaren gaineke arreta integralari buruzkoak, pertsonen osasuna babesten lagundu nahi du, bereziki adingabeak eta kolektibo kalteberak zainduz. Horrez gain, berariaz ezartzen ditu eremu horretan udalerriei emandako eskumenak. Adikzioen prebentzioari dagokionez, honako funtzio hauek nabarmentzen ditugu:

13.artikulua – Adikzioak prebenitzea

Prebentzio-neurriak adikzioei, adikzioen aurrekariak diren arrisku-faktoreei, kontsumo problematikoei eta norberaren portaerarekin lotutako adikzioak sor ditzaketen gehiegizko jokabideei aplikatuko zaizkie.

Botere publikoek, dagozkien jardun-eremuen barruan prebentziozko esku-hartzeak bultzatuko dituzte bizi-baldintzak hobetzeko, adikzioetan eragina duten bazterkeriako faktore pertsonalak, familiarak edo sozialak gaingitzea, eta horren eragina jasotzen duten herritarrak euren ingurune komunitarioan sartzea errazteko.

14. artikulua – Adikzioen prebentzioaren arloko helburuak

Babes-faktoreak zabaltzea eta indartzea, drogen eta adikzio-gaitasuna duten beste substantzia batzuen kontsumo problematikoen aringarri gisa, bai eta norberaren portaerarekin lotutako adikzioak sortzeko arriskua duten gehiegizko jokabideen agerpen gisa ere.

Banakako, familiako, laneko eta inguruko kalte espezifikoak sortzeko gai diren arrisku-faktoreak desagerraraztea edo, hala badagokio, gutxitzea.

c) Drogak eta mendekotasun-geruza duten beste substantzia batzuk kontsumitzen hasteko adina ahalik eta gehien atzeratzea, bai eta portaerarekin lotutako adikzioak garatzeko arriskua dakarten gehiegizko jokabideetan hasteko adina ere.

d) Arrisku- eta abusu-kontsumo problematikoak desagerraraztea eta, hala badagokio, mugatzea, bai eta portaerarekin lotutako adikzioak sortzeko arriskua duten gehiegizko beste jokabide batzuk ere

e) Jokabide eta kontsumoetan moderazio- eta erantzukizun-jarraibideak hartzea sustatzea, gehiegi direnean adikzioak sortzeko arriskua dute eta.

15.artikulua – Prebentzioa familia-eremuan.

Familiari babes berezia emango zaio, honako helburu hauek lortze aldera:

a) Hezkuntzan eta familian dituzten eskumenak hobetzea.

b) Familia-nukleoaren erresistentzia sendotzea kontsumitzeko arriskua eta kontsumoa bera gauzatzen denean.

c) Arrisku-faktoreak murriztea eta seme-alaben artean substantzien kontsumo problematikoetatik babesteko faktoreak areagotzea. Horrela, familiak prebentzio-eragile gisa duen funtzioa indartu egingo da, bereziki etxean adingabeak eta gazteak dituzten familien kasuan.

Administrazio publikoek lankidetzaz eta koordinazio bidez eraginkorrak ezarriko dituzte gai horretan eskumena duten erakunde publiko guztien, gurasoen elkarrekin eta eragiteko eremu honetan parte hartzen duten erakunde pribatu zein irabazi asmorik gabekoen artean.

4. Honako prebentzio-neurri hauek arbitratuko dira: [...]

e) Arrisku-egoeran edo zaurgarritasun-egoera handiagoan dauden familiei zuzendutako neurriak garatzea:

e.1. Informazioa, aholkularitza, orientabidea eta esku-hartze sozioedukatibo eta psikosoziala. [...]

e.3. Gizarte-zerbitzuek familian esku hartzea, baldin eta gizarte-arriskurik antzematen bada.

16. artikulua – Prebentzioa eremu komunitarioan

Komunitate-eremuko prebentzioak lehentasuna du, eta biztanlerian edo interes handieneko taldeetan (ikastetxeak, zerbitzu soziokulturalak, gazte-, kultura-, kirol- eta boluntarioritza-elkarteak, langileen kolektiboak eta lantokiak) eragin handiena duten baliabideak eta herritarrak hartzen ditu.

Lehentasunez, beren eskumenen arabera, udalek eta mankomunitateek garatuko dute, kide diren herritarrei eta komunitateei ematen dizkieten zerbitzuetatik gertu daudelako.

17. artikulua – Prebentzioa hezkuntzaren eremuan

1.– Hezkuntza-eremua oinarritzeko zutabea da prebentzio-jarduketetan. Horrela, besteak beste, honako neurri hauek hartuko dira:

Adin guztietako ikasleak substantzien kontsumoarekin eta hainbat esparrutako aplikazio berriei buruzko informazioa eman eta sentsibilizatuko da (ausazko jokoak, telebistaren eta teknologia digitalen erabilera (Internet, sare sozialak, bideo jokoak, eskuko telefonia). Eta horrez gain, ohartaraziko da jokaerarekin lotutako adikzioak sor litzaketen gehiegizko beste jokabide batzuekin lotutako arriskuez.

22. artikulua – Prebentzioa kirolaren, aisiaren eta denbora librearen esparruetan

Osasunaren, gazteriaren, kulturaren eta hezkuntzaren arloan eskumena duten EAEko herri-administrazioek politika integral bat sustatuko dute, aisialdia erabiltzeko ereduak substantzien kontsumoaren, adikzio-portaeren eta jokaerarekin lotutako adikzioak

sor ditzaketen beste jokabide arriskutsu eta gehiegizkoen ordezkotza izan daitezen, batez ere gazteen eta nerabeen artean.

2.– Horretarako, honako jarduketak hauek gauzatuko dituzte (...):

- a) Dibertimendua, aisialdi eta denbora librearen erabiltzeko modu osasungarri eta dibertigarriak izatea.
- b) Teknologia digitalen eta horien aplikazio berrien erabilera arduratsua sustatzea, dibertimendua, aisialdi eta denbora librearen direla kontuan hartuta.
- c) Gazteen elkarteak bultzatzea eta elkarteak okupazio-, aisialdi-, kirol- edo kultura-programetan parte hartzea, batez ere arriskuan dauden gizarte-kolektiboen kasuan

Bestalde, **Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 2008/12 Legeak**, bere xedean adikzioen prebentzioa esplizituki aipatzen ez badu ere, udalek gizarte-zerbitzuen arloan duten zeregina artikulatzen du, ikuspegi komunitarioan eta hurbiltasunean oinarrituta, “beste sistema eta politika publiko batzuekin lankidetzan eta koordinatuta, biztanleria osoaren ongizatea sustatzea” helburu dutenak.

Helburu nagusiak, besteak beste, honakoak dira: autonomia pertsonala sustatzea eta pertsonak, familiak eta taldeak gizarteratzea.

Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren Aurkako Osorik Babesteari buruzko ekainaren 4ko 2021/8 Lege Organikoak aurrerapen handiak egiten ditu adingabeen eskubideen defentsan, betiere hurbilketa integral batetik abiatuta, arrisku-faktoreen eta horien ondorioen izaera multidimentsionalari erantzunez.

Izan ere, jarduera-maila desberdinak jasotzen ditu, sentsibilizazioa, prebentzioa eta detekzio goiztiarra azpimarratuz, eta horiek bat datoz ikuspegi komunitarioarekin, Adikzioei buruzko Planaren oinarri den arreta-eredu gisa.

Legeak aurreikusten dituen jarduketaren artean, 45. artikuluan (*Interneten erabilera segurua eta arduratsua*) jasotakoak nabarmenduko ditugu:

1. Herri-administrazioek hezkuntza-, sentsibilizazio- eta zabalkunde-kanpainak egingo dituzte adingabeekin lan egin ohi duten haur eta nerabeentzat, familientzat, hezitzaileentzat eta bestelako profesionalentzat, betiere horiek Interneten eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera segurua eta arduratsuekin lotutako lana egiten badute. Horrez gain, haurren eta nerabeen aurka sexu-indarkeria eragin dezaketen arriskuei buruzko kanpainak ere egingo dituzte, besteak beste, ziberbullying-earen, grooming-earen, genero-ziberindarkerian edo sexting-earen modu desegokian aritzeak eragin ditzakeen arriskuei buruzkoak, bai eta adingabeen pornografiarako sarbideari eta kontsumoari buruzkoak ere.

Era berean, familiei laguntzeko neurriak sustatuko dituzte, gurasoen rola indartuz eta babestuz, haien legezko egin beharrekoak betetzea erraztuko duten gaitasunak eta trebetasunak garatuz, eta, bereziki, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 2018/3 Lege Organikoaren 84.1. artikuluan ezarritako eginkizunak betetzekoak.

2. Administrazio publikoek adingabeekin lan egin ohi duten haur eta nerabeen, familien, hezitzaileen eta bestelako profesionalen eskura jarriko dute Interneten erabilera

seguru eta arduratsuari buruzko laguntza-lerroko berariazko zerbitzu bat, erabiltzaileei laguntza eta aholkularitza eskaintzeko adingabeek Interneten izan ditzaketen arrisku- eta larrialdi-egoeretan.

EUSKADIKO ADIKZIOAK PREBENITZEKO VIII. PLANA 2023-2027

Honako plan honen jarduketa-ildoak Adikzioak Prebenitzeko VIII. planean jasotzen diren jarduketa-lerroetan oinarrituta daude. Honako hauetan hain zuzen:

- Portaera osasungarriak sustatzen dituzten eta adikzio-substantzien eta jokabideen kontsumoa nolabait desnormalizatzen laguntzen duten inguruneak aktibatzea, eskuragarritasuna eta eskaintza murrizteko egiturazko neurriak barne.
- Osasuna sustatzeko eta prebentziorako programak indartzea, bizitzaren ibilbidearen ikuspegiarekin eta kapital emozionala eta pertsonen bizitzarako trebetasunak azpimarratuz.
- Adikzioak Prebenitzeko Plana ezartzeko orduan, sektoreen arteko ekintza eraginkorragoa finkatzea.

Eskumen-esparruari dagokionez, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 2016/1 Legearen 68. artikulua aipatu beharra dago. Udalen eskumenak honako hau ezartzen du:

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek dagokie, bakoitzak bere lurralde-eremuan:

- a) Adikzioak Prebenitzeko Tokiko Plana eta, oro har, arlo horretako programak eta jarduketak egitea, garatzea eta gauzatzea, aipatutako lege horretan, Adikzioak Prebenitzeko Euskadiko Planean eta, hala badagokio, Foru Planean jasotako aginduekin bat etorritik.
- b) Aholkularitza- eta koordinazio-organoak sortzea eta horien funtzionamendu-araubidea ezartzea.
- c) Adikzioen arloko sariak eta aitorpenak kudeatzea, dagokien lurralde-eremuan.
- d) Lege horretan aurreikusitako kontrol-neurriak betetzen direla gainbegiratzea eta zaintzea.
- e) Ikuskatzeko eta zehatzeko eskumena erabiltzea, legean aurreikusiako baldintzetan.

3. KONTZEPTU-ESPARRUA ETA JARDUTEKO PRINTZPIOAK

Adikzioena fenomeno sozial konplexua da, haien jatorrian eta garapen-prozesuan zerikusia duten faktore eta dimentsio ugarien arteko harremanetik eratorria. Hainbat eremutan eta arlotan jaso daiteke haien eragina.

Fenomeno aldakorra da, eta horren froga da “mendekotasun” terminoa bera. Izan ere, ikerketa berrien arabera, ez dago lotuta adikzio-substantziekin soilik, mendekotasuna sor dezaketen jokabideekin ere lotura estua baitu. Ildo horretan DSM-5 Buruko Nahasmenen Diagnostiko eta Estatistikako Eskuliburuaren I. ardatzean kategoria berri bat dago: “adikzio-

substantziekin eta nahasmenduekin lotutako gorabeherak” hain zuzen, non joko patologikoa baino ez den nabarmentzen.

Ildo horretan 2015/1 Legeak, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoak, jokabide-adikzioztat edo substantziarik gabekotzat jotzen du joko patologikoa edo ludopatía, bai eta teknologia digitalen eta horien aplikazio berrien erabileran gehiegizkoak diren jokabideak ere, eta, bereziki, sare sozialen eta bideo-jokoen erabilerarekin lotutakoak.

Beraz, kontuan hartuta adikzioak denboran forma desberdinak hartzen dituzten fenomenoak direla, unean uneko gizarte-sentsibiltatearen, kontsumo-testuinguru eta eredu berrien, substantzia berrien edo substantziarik gabeko adikzioen arabera, prebentzio-programen diseinuan garapen enpiriko ona izan duten azalpen-ereduen aldeko apustua egin behar ditugu.

Horren harira, teoria integratibo eta ulerkorren multzoaren ikuspegian kokatuko gara. Teoria horiek beste hainbat teoriatako hainbat osagai integratuz azaltzen dute kontsumo-jokabidea. Azpimarratzekoak honakoak:

Eredu ekologiko, sistemiko eta biologikoaren arabera, pertsonen garapena pertsonen eta hurbileko inguruneen arteko egokitzapenaren emaitza da. Ingurugune horiek maila desberdinetan mailakatzen dira:

Mikrosistema: Gizabanakakoa garatzen den mailarik hurbilena da, hala nola familia, auzoa edo eskola; giro horretan gertatzen dira talde horietako kide diren pertsonen arteko gertuko harremanak.

Mesosistema: Mikrosistemako bi inguruen edo gehiagoren arteko harremana hartzen du barne, non pertsonak modu aktiboan parte hartzen duen: eskola eta familia, familia eta auzotarrak, besteak beste.

Exosistema: Mikrosistema batzuen arteko lotura da, eta subjektua ez dago bertan, baina horren ondorioak pairatzen ditu.

Makrosistema: Kultura bakoitzean pertsona garatzen den erakundeen ezaugarri orokorra, testuinguruak eta abar zehazten dituzten gizarte-, kultura- eta egitura-baldintzak dira.

Sistemen eragina dinamikoa da, eta, pertsonen eboluzio-unearen arabera, testuinguru batzuek besteek baino garrantzi handiagoa dute. Hori funtsezkoa da prebentziozko esku hartzerako; izan ere, arrisku-faktoreen eta babes-faktoreen pisua subjektuaren sozializazio-etapa zehatzekin erlazionatzea dakar.

Eredu biopsikosozialak osasuna mantentzeko erantzukizun indibidual eta soziala sustatzearen garrantzia nabarmentzen du, Osasuna etengabeko garapen-prozesu gisa ulertuta maila fisikoan, psikikoan eta sozialean. Eredu horren ekarpen nagusietako bat “arrisku faktoreen” kontzeptua da, hau da, drogen kontsumoa/abusua gertatzeko probabilitatea areagotu dezaketen eta kontsumo/abusu horrek arazoak eta “babes-faktoreak” sor ditzakeen ezaugarri indibidual, sozial eta kulturalak, hau da, drogak kontsumitzeko/abusatze probabilitatea murriztu dezaketen eta hain kalteberak ez diren ezaugarri indibidual, sozial eta kulturalak.

Adierazi behar da ez dagoela kasualitate zuzenik arrisku-faktoreen eta adikzioaren artean, baina arrisku-faktoreak elkartzeak subjektuen zaurgarritasuna piztu eta adikzioaren aldeko joera sor dezake.

Ikuspegi horretatik, esku-hartzeak, alde batetik, arrisku-faktoreak minimizatzen bideratu beharko lirateke; eta, bestetik, babes-faktoreak ahalik eta gehien handitzera. Hainbat ikerketak (Arbex, C, 2002; NIDA, 1997; Hawkins et al., 1992, besteak beste) ahalegin handia egin dute arrisku- eta babes-faktoreak identifikatzeko eta honako kategoria hauetan sailkatzeko: pertsonalak, familiakoak, eskolakoak, harremanetakoak eta komunitarioak.

Kategoria horietako bakoitzean faktore horiek ondo diagnostikatzearen ondorioz Gaia ondo ezagutzea funtsezkoa da prebentzio-programa egoki bat ezarri eta garatzeko.

Prebentziozko esku-hartzeak bideratu behar dituzten oinarrizko irizpideak:

- Prebentzio-estrategiak modu globalean egituratu behar dira, banakako eta ingurumeneko arrisku-faktoreen eragina murrizteko eta babes-faktoreak areagotzeko.
- Komunitatearen inplikazioa beharrezkoa da prebentzio eraginkorra lortzeko.
- Prebentzioa osasunaren arreta orokorreko sistemekin eta gizarte-zerbitzuen sistemekin lotu behar da, eta zerbitzu jarraitua eta integrala ematen lagundu behar du.
- Prebentzio-estrategiak eta mezuak eraginkorragoak dira biztanleria-talde desberdinetara egokituta daudenean.

Prebentziozko esku-hartzeak gidatu behar dituzten printzipio orientatzaileei dagokienez, Adikzioak Prebenitzeko Euskadiko VIII. Planak honako hauek adierazten ditu:

- *Osasuna politika guztietan*: Osasuna da ingurumen-, kultura-, gizarte- eta ekonomia-baldintzen eta pertsonaren bizi-estiloen eta faktore biologikoen arteko elkarreaginaren emaitza. Horregatik, beharrezkoa da sektoreen arteko politikak hainbat angelutatik garatzea.
- *Genero ikuspegia*: Planaren azterketan, ezarpenean eta ebaluazioan gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun biologikoak, sozialak eta kulturalak identifikatzeko.
- *Garapen iraunkorra*: Gizarte-eraldaketa eta Euskadi 2030 Agendaren garapen iraunkorreko helburuak betetzeko egiten duen ekarpena sendotzeko konpromisoa hartuz.
- *Ikuspegi parte-hartzailea*: Plana definitu, ezarri eta ebaluatzean, Euskadin adikzioen arloan lan egiten duten eragileak eta erakundeak txertatuz, bai eta horien eragina jasotzen duten pertsonak, haien familiak eta beste eragile sozial eta komunitario batzuk ere.
- *Desberdintasunak eta ekitatea murriztea*: Desberdintasun sozialak eragiten dituzten faktoreak lehenetsiz eta jardueretan unibertsaltasuna txertatuz.
- *Bizitzaren bilakaeraren ikuspegia*: Biztanleriaren beharrak modu dinamikoan definitzeko eta pertsonen bizitzako etapak integratzeko.
- *Kalitatea, ebidentzia enpirikoa eta ebaluazioa*: Jarduketena eta programena.

4. EGOERAREN DIAGNOSIA

Diagnosirako faseak hiru elementu jorratu ditu:

1. TOKIKO PLANAREN (2021-2023) EBALUAZIOA, non planifikatutako ekintzen betetze-maila jasotzen den.

2. SANTURTZIKO NERABEEN KONTSUMOEI BURUZKO AZTERLANA, non 12 eta 18 urte arteko gazteek substantziak kontsumitu eta teknologiak erabiltzeari buruzko datuak jasotzen diren.

3. HERRIKO UDAL, HEZKUNTZA, GIZARTE ETA OSASUN ARLOETAKO KIDEEEN IRITZI ETA EKARPENAK

4.1.- 2021-2023eko PLANAREN EBALUAZIOA

Ebaluazioa ezinbesteko elementua da edozein proiektu edo plan egiteko eta behar bezala kudeatzeko; izan ere, informazioa ematen du, bai programak diseinatzeko, bai programa horien betetze-maila eta aurreikusitako ekintzak ezagutzeko, bai gauzatze-prozesuan izandako zailtasunak eta lorpenak ezagutzeko. Horren guztiorren ondorioz, aurreikusitako programa eta jardueren kalitatea eta kontu-ematea bermatuko duten erabakiak hartzea errazten du.

Planaren eragina ebaluatzea oso konplexua izan daiteke; izan ere, jarrerak eta ohiturak aldatzea dakarten prebentziozko esku-hartzeek plan batean baino denbora-espazio handiagoak behar dituzte, eta, gainera, beste faktore batzuk ere hartu behar dira kontuan. Horregatik, Tokiko 2021-2023 Planaren ebaluazioak **prozesuaren ebaluazioa** proposatzen du, arreta berezia jarritz honako hauetan:

- Aurreikustako programa eta jardueren gauzatze-maila. Programa edo jarduera bat aldatu bada edo inplementatzen ez bada, arrazoiak zehaztuko dira.
- Talde jasotzaileen parte-hartze maila.

Planean honako **jardun-arloak** aurreikusi ziren:

- **Eskaera murriztea**, esku-hartzeak prebentzioan oinarritu ziren batez ere.
- **Eskaintzaren kontrola**, indarrean dagoen araudia betetze-mailan ardazten diren neurri eta jarduketak.
- **Koordinaziorako ardatz transbertsala**

Honako **eremu** hauetan:

- Eskola
- Familia
- Komunitarioa
- Soziosanitarioa

Aurkeztutako datu-multzoa plana indarrean egon den urteetan jasotako datuen batz bestekoa da.

ESKOLA EREMUA

Aurreikusitako 17 ekintzetatik 15 egin dira, hau da, % 83,3. Planifikatutako bi esku-hartzetan eragina izan zuten oraindik COVID 19 (OMICRON aldaera) pandemiaren ondorioek, eta ezin izan ziren behar bezala gauzatu.

- *Irakasleei ikasle zaurgarrien motibazioa eta ikaskuntza sustatzen laguntzea*: Lehen Hezkuntzako 4 ikastetxek eta 54 ikaslek hartu dute parte.
- *Santurtzi Kerik Gabe*: Lehen Hezkuntzako 8 ikastetxek eta Bigarren Hezkuntzako 4k hartu dute parte. Guztira, 1.115 ikasle izan dira, Lehen Hezkuntzako 3. eta 5. mailakoak eta Bigarren Hezkuntzako 1. mailakoak.
- *Alkoholaren abusuaren prebentzioa*: Bigarren Hezkuntzako 6 ikastetxek hartu dute parte, 3. mailako 1.107 ikaslek hain zuzen.
- *“Alkoholaren arriskua” programa*: Bigarren Hezkuntzako 7 ikastetxek hartu dute parte, Bigarren Hezkuntzako 4. mailako 720 ikaslek hain zuzen.
- *“Alkoholaren aurkako mimoa”*: Bigarren Hezkuntzako bi zentro aritu dira. Guztira Bigarren Hezkuntzako 3. mailako 109 lagun.
- *Alkoholiko Anonimoen hitzaldiak*: Bigarren Hezkuntzako 6 zentrok hartu dute parte, Batxilergoko batek eta Prestakuntza Zikloetako beste batek. Guztira, 804 lagunek.
- *Kalamuaren kontsumoa prebenitzen*: Bigarren Hezkuntzako 7 zentro aritu dira, 2. eta 3. mailako 1851 lagun hain zuzen.
- *Bizikidetzarako eta berdintasunerako hezkuntza afektiboari buruzko programa*: 12 zentro izan dira guztira, Lehen eta Bigarren hezkuntzakoak, PCPIkoak eta Prestakuntza Zikloetakoa. Guztira 3312 lagun.
- *Interneten eta sare sozialen arriskua*: 12 zentrok hartu dute parte, Lehen eta Bigarren Hezkuntzakoak, PCPI-koak eta Prestakuntza zikloetakoak. Guztira 4110 lagun izan dira.
- *Jolastu Bizi NBEen programa*: Bigarren Hezkuntzako zentro bat, 110 ikasle.
- *Online jokoei eta kirol apustuei buruzko programa*: Bigarren Hezkuntzako 4. mailako 8 zentro izan dira. Guztira 804 ikasle.
- *Elikadura osasungarriari buruzko programa*: Lehen eta Bigarren Hezkuntzako 6 zentrok hartu dute parte, Guztira, 637 ikaslek.
- *Jarduera fisikoari buruzko programa*: Lehen eta Bigarren Hezkuntzako 6 zentrok hartu dute parte. Guztira 866 ikaslek.
- *“Aldaketarako prestatzen” programa*: Bigarren Hezkuntzako bi zentrok hartu dute parte. Guztira, 52 ikaslek.
- *Eskola, drogarik gabeko espazioa*: Bigarren Hezkuntzako zentro batek hartu du parte.

FAMILIA EREMUA

Aurreikusitako 5 ekintzak egin dira, hau da, % 100.

- *Familiaren Heziketa Eskola*: Aurrez aurreko 71 saio eskaini dira eta 108 aitag eta 387 amak hartu dute parte.
- *Heziketarako jarraibidedun materialak* (adikzioak, nerabezaroa): “Heziketa 4 urte duten arte” eta “Hezten 5 eta 10 urte duten bitartean” eta prestakuntza-pilulak webgunean.
- *Prestakuntza-pilulak webgunean*: Prestakuntzarako 12 pilula. 100 amak eta 15 aitag eskatu dituzte.

- *Prestakuntza gaitasun digitaletan:* Prestakuntzarako 4 pilula eta sare sozialei buruzko hitzaldiak, bideo-jokoak eta abar. 51 amak eta 18 aita hartu dute parte.
- *Aholkularitza-zerbitzua familientzat:* 71 familia eta 24 aita artatu dira.

EREMU KOMUNITARIOA

Aurreikusitako 5 ekintzak egin dira eta aurreikusi ez genituen batzuk ere gauzatu ditugu.

- *Webgunean materialak eta zerbitzuak argitaratzea:* Webgunean eta sare sozialetan liburuak eta pilulak eskegi dira. Webgunean 1548 bisitaldi egon dira.
- *Adikzioei buruzko informazio-, orientazio- eta aholkularitza-zerbitzua:* 14 kasu artatu dira.
- *Laguntza ekonomikoa prebentzio-erakundeetarako:* Gizarte-arrisku egoeran dauden 65 ume artatzen dituzten 6 erakunde; arriskuari buruzko adierazlerik gabeko 107 mutil eta 100 neska; jokoarekin arazoak dituzten 52 gizonezko eta 21 emakumezko; eta guraso-rolari eta familia-rolari laguntzeko arloan 12 aita eta 38 ama.
- *Gizarte-eragileentzako prestakuntza:* Alkohola arduraz banatzeko prestakuntza saioak. 9 txosnak hartu dute parte eta txosna horien ordezkari banari eman zaio prestakuntza.
- *Jaietan alkohola kontsumitzeari buruzko informazio-kanpaina:* Alkoholari eta jaiei buruzko hitzaldia familiei: Herriko jaietan eta inauterietan adin txikikoei alkohola saltzeari eta kontsumitzeari buruzko kanpaina egin da herriko prentsan.
- *Kontsulta eta herritarren parte-hartzea tabako eta kerik gabeko espazio zabalak hautatzeko:* 2000 lagunek hartu dute parte tabako eta kerik gabeko espazioak aukeratzeko.
- *Adikzioak prebenitzeko programa futbol klubetan:* 4 futbol-talde, kadete mailakoak. Guztira, 145 lagun izan dira programan parte-hartzaile: 34 guraso, 101 kadete eta 10 entrenatzaile.

EREMU SOZIOSANITARIOA

Ekintza bat aurreikusi zen eta gauzatu egin da.

- *Psikofarmakoak eta antsietatea kontrolatzeko programa:* Bi talde, guztira, 22 parte-hartzaile.

ESKAINITZA MURRIZTEA ETA KONTROLATZEA

Aurreikusitako ekintzak gauzatu egin dira.

- *Eusko Jaurlaritzaren kanpainan parte hartzea:* Kartelak ostalaritza-sektorean eta mugak adin txikikoei zuzendutako salmentan eta kontsumoan: 174 tabernatan eta 28 jatetxetan egin da kanpaina.
- *Saltoki eta supermerkatuetan dauden kartelen betetze-mailari buruzko kanpaina:* 17 supermerkatu eta 24 denda
- *Adin txikikoei alkohola saltzeko debekuaren betetze-mailari buruzko kanpaina:* Espediente 1 zabaldu da eta alkohola konfiskatu da.

ARDATZ TRANSBERTSALA - KOORDINAZIOA

- *Ekintza guztien ebaluazioa:* Programa guztiak ebaluatu dira.
- *Koordinazioa tartean diren gainerako eragileekin* (osasun-arloa, hezkuntza, udal-arloak, gizarte-erakundeak, hirugarren sektoreko erakundeak):
- SSB eta EISE: Adin txikiko seme-alabekin zailtasunak dituzten familien kasuak artatzeko sortutako koordinazio-gunea
 - Ezkerraldea- Enkarterriak-Gurutzeta ESlaren Batzorde Soziosanitarioa.
 - Eusko Jaurlaritzan Adikzioak Prebenitzeko saileko zuzendaritza.
 - Santurtziko hezkuntza-zentroak.

4.2.- SANTURTZIKO NERABEEI DAGOKIENEZ, TABAKOAREN, ALKOHOLAREN ETA KALAMUAREN KONTSUMOEI ETA TEKNOLOGIEN ERABILERARI BURUZKO AZTERLANAREN DATUAK

Lagina ateratzeko Santurtziko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko 384 ikasle gazte hautatu ziren. Hona hemen laginaren banaketa adin-tarteen eta generoaren arabera:

Laginaren banaketa adin tartean eta generoaren arabera					
	2023				
ADINA	GUZTIRA	%	GIZONAK	EMAKUMEAK	Ez binarioak
14 urte	109	28,4 %	55	51	3
15 urte	103	26,8%	39	61	3
16 urte	81	21,1%	42	39	-
17 urte	84	21,9%	40	43	1
18 urte	6	1,6%	3	2	-
19 urte	1	0,3%	-	1	1
Guztira	384	100%	179	197	8

TABAKOAREN KONTSUMOA

Tabakoa da ikasleen artean kontsumoetan prebalentzia handiena duen bigarren substantzia psikoaktiboa. Denbora-tarteak aztertuz gero, ikus daiteke % 32,4k inoiz erre duela tabakoa bizitzan, % 28,4k azken urtean eta % 19,1ek inkesta egin aurreko 30 egunetan. Aztertutako tartea alde batera utzita, kontsumo-prebalentziak jaitsi egin dira 2019an erregistratutako balioekin alderatuta, eta ESTUDES 2021 sistemaren Euskadiko emaitzak baino txikiagoak dira

	SANTURTZIKO AZTERLANA		ESTUDES
DENBORA TARTEA	Guztira 2019	Guztira 2023	2021
INOIZ	32.4	27.9	40.4
AZKEN 12 HILABETEOTAN	28.4	23.4	33.5
AZKEN HILEAN	19.1	17.7	25

Tabakoaren kontsumoaren prebalentziak behera egin du baldin eta 2019a baino lehen egindako azterlanean lortutako datuekin alderatzen badugu.

	SANTURTZIKO AZTERLANA				ESTUDES 2021	
	G	G	E	E	G	E
DENBORA TARTEA	2019	2023	2019	2023	2021	
INOIZ	29	19.6	25.7	37.1	37	43.9
AZKEN 12 HILABETEOTAN	25.5	16.6	31.1	31	29.1	38.2
AZKEN HILEAN	16.2	10.1	21.9	25.4	22.9	27.1

Baina kontsumoa sexuaren arabera aztertzen badugu, gizonezkoen kontsumoak behera egiten duela ikusiko dugu, neskena, berriz, gora, mutilena baino neurri handiagoan gainera.

Kontsumitzen hasteko batez besteko adina

Tabakoa kontsumitzen hasteko batez besteko adina ia berbera da 2019a baino lehen eta 2019an, eta Eusko Jaurlaritzako ESTUDES azterlanaren batez bestekoa baino baxuxeagoa.

SANTURTZI 2019	SANTURTZI 2023	ESTUDES 2021
13.8	13.9	14,1

Arriskuaren pertzepzioa

Tabakoaren kontsumoaren prebalentziaren berri izateaz gain, garrantzitsua da jakitea zein den kontsumo horrekin lotutako arriskuaren pertzepzio-maila. Ildo horretan, erre dutenen % 87,5ek uste dute arazo nahikotxo edo asko ekar ditzakeela. Baina 2019ko datuekin alderatuta, ikusiko dugu gutxixeago direla hala uste dutenak.

	GUZTIRA 2019	GUZTIRA 2023	ESTUDES 2021
Arazo nahikotxo edo asko	90,1	87,5	91,8

Substantzia eskura izatea

Kontsumoaren arriskuari buruzko pertzepzioa ez ezik, garrantzitsua da jakitea haien ustez zein puntutaraino den erraza edo zaila tabakoa lortzea. 2019ko emaitzarekin alderatuta, ikusiko dugu gora egin duela erraza edo oso erraza dela uste duten ikasleen kopuruak. Hala ere, kopuru hori ESTUDES 2021 azterlanean lortutako emaitzak baino askoz ere baxuagoa da.

	Guztira 2019	Guztira 2023	ESTUDES 2021
Erraza / oso erraza	76,7	80,7	96,5

Kontsumoa eteteko asmoa

Tabakoa erretzeari uzteko asmoaz galdetuta, kontsumitu dutenen % 38,9k ez dute kontuan hartu erretzeari uzteko aukera. % 13,9k, berriz, pentsatu bai, baina ez dira ahalegindu, eta % 47,2k planteatzeaz gain, ahalegina egin dute.

	ESTUDES 2021	Guztira 2023	Gizonak 2023	Emakumeak 2023
Aldez aurretik planteatu	28,1	38.9	48.6	34.2
Planteatu	29.8	13.9	14.3	13.7
Gauzatu	42,1	47.2	37.1	52.1

Familiaren jarrera tabakoaren kontsumoari dagokionez

Gora egin du tabakoa kontsumitzea debekatzen duten gurasoen ehunekoak, baldin eta 2019an izandako datuekin alderatzen badugu.

Gurasoen jarrera tabakoaren kontsumoaz		
	Santurtzi 2019	Santurtzi 2023
Ez dit uzten	74,6	81,8

ALKOHOLAREN KONTSUMOA

Santurtzin 2023an ikasleen kontsumoari buruz egindako azterlanetik ondorioztatu da substantzia guztien artean alkohola dela prebalentziarik handiena duen droga, alde handiz gainera. Horren harira, % 57,8k adierazi du inoiz edan dituela edari alkoholodunak. % 52,4k azken urtean egin du, eta % 36,7k azken hilabeteetan. Eta 2019ko emaitzekin alderatuz gero, ehunekoetan atzeman daiteke 15 puntu igo dela azken hilabeteetan kontsumitu duten ikasleen kopurua.

	SANTURTZIKO AZTERLANA		ESTUDES
DENBORA TARTEA	Guztira 2019	Guztira 2023	2021
BIZITZAN INOIZ	64.3	57.8	74.9
AZKEN 12 HILABETEOTAN	55	54.2	70.7
AZKEN HILEAN	21.9	36.7	55.9

Baina datuak sexuaren arabera kontsumoan oinarrituta aztertzen baditugu, atzemango dugu nesken kontsumoa igo egin dela denbora-tarte guztietan, eta bereziki, azken hilabeteetan. Tarte horretan ere nabarmen igo da kontsumitu duten mutilen ehunekoa.

DENBORA TARTEA	SANTURTZIKO AZTERLANA				ESTUDES 2021	
	2019	2023	2019	2023	2021	
BIZITZAN INOIZ	61.9	44.1	66.5	68	71.7	78,3
AZKEN 12 HILABETEOTAN	48,4	44,7	60,7	62,9	67,4	74,2
AZKEN HILEAN	20,6	32,4	23,2	41,1	53,2	58.8

Intoxikazio etilikoak (mozkorraldiak)

Ikasleen % 21,6k aitortu dute azken hilabeteetan mozkortu izana, 2019ko azterlanean, berriz, kopurua dezente baxuagoa zen, % 7,1ekoa hain zuzen. 14 puntuko igoera egon da.

	Guztira 2019	Guztira 2023	ESTUDES 2021
Azken hilean mozkortu egin dira	7,1	21,6	23,2

Mozkorraldien prebalentzia sexuz banatuta aztertzen badugu, neskak mutilak baino gehiagotan mozkortu direla ikusiko dugu.

	SANTURTZIKO		ESTUDES 21	
	G'19	G'23	G	E
Mozkorraldien prebalentzia azken 30 egunotan	7,8	17,9	20,8	25,6

Kontsumitzen hasteko batez besteko adina

Alkohola lehenengoz edan dutenen adina apur bat atzeratu da 2019ko datuekin alderatuta (13,7 urtetatik 13,9ra). Era berean, lehenengo abusuaren batez besteko adina zertxobait atzeratu egin da, batez ere nesken kasuan.

	Guztira 2019	Guztira 2023	ESTUDES 2021
KONTSUMOAREN HASIERA	13.74	13.9	14

	SANTURTZI 2023				ESTUDES 2021	
	G'19	G'23	E'19	E'23	G	E
KONTSUMOAREN HASIERA	13.36	14	14.08	13.8	14	14
LEHENENGO MOZKORRALDIA	14.24	14.1	14.43	15.3		

Arriskuaren pertzepzioa

Alkoholaren kontsumoari dagokionez, arriskuaren pertzepzioak gora egin du 2019 eta 2023 urteen artean. % 60,1ek eta %56,8k uste dute arazo nahikotxo/asko ekar ditzakeela, ebaluatutako bi kontsumo-motetan hurrenez hurren.

	Guztira 2019	Guztira 2023
1-2 kaña/kopa egunero	54.4	60.1
5/6 kaña/kopa asteburuan	53.8	56.8

Arriskuaren pertzepzioaren inguruan atzeman den igoera bai gizonengan, eta bai emakumeengan atzeman da. Dena dela, emakumeen kasuan altuagoa da eguneroko kontsumoaren neurketan.

SANTURTZIKO AZTERLANA	G'19	G'23	E'19	E'23
1-2 kaña/kopa egunero	54.1	58.6	54.5	62
5/6 kaña/kopa asteburuan	52.4	55.3	55.3	58.3

Substantzia eskura izatea

Deigarria da gazteek alkohola lortzeko duten erraztasuna adin txikikoei saltzea debekatuta dagoen tokietan (hipermerkatuak, supermerkatuak...). Nahiago dute supermerkatu edo hipermerkatuan erosi, hori ez da 2019 eta 2023 urteen artean aldatu. Gainera, horrelako tokietan lortzeko zailtasunak behera egin du. Bestalde, nabarmentzekoa da gazteek zein erraz lortzen duten alkohola norberaren etxean edo beste batzuen etxean.

	Santurtzi 2019	Santurtzi 2023	ESTUDES 2021
Tabernak edo pub-ak	20.8	39.5	48,2
Diskotekak	20.4	15.7	12,8
Hipermerkatuak	17.7	26.9	21,2
Supermerkatuak	34.7	60.5	
Dendak, kioskoak, upelategiak	23.7	44.8	53,9
Norberaren etxean	15.1	17.5	28,6
Beste batzuen etxean	25.2	31.4	40
Kaleko salmenta	10.7	6.7	3,7

Familiaren jarrera alkoholaren kontsumoaz

2019ko azterlanaren emaitzekin alderatuta, atzeman da guraso biek, aitak eta amak, malguago jokatzeko dutela alkoholaren kontsumoaren aurrean.

	Aita 2019	Aita 2023	Ama 2019	Ama 2023
Ez didate uzten	42	37.2	44.3	37.8

KALAMUAREN KONTSUMOA

Kalamuaren kontsumoari buruzko datuek adierazitakoaren arabera, 2019. eta 2023. urteen artean murrizketa egon da denbora-tarte guztietan.

	SANTURTZIKO AZTERLANA		ESTUDES
	Guztira 2019	Guztira 2023	2021
BIZITZAN INOIZ	28.4	19.8	33.5
AZKEN 12 HILABETEOTAN	23.5	15.1	26.6
AZKEN HILEAN	13.8	8.3	

Baina kontsumoaren prebalentzia sexuz banatuta aztertzen badugu, ikusiko dugu 2023an emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago kontsumitu dutela 2019ko datuekin alderatuta, nahiz eta kontsumoa jaitsi den azertu diren hiru tarteetan. Garai hartan gizonezkoek emakumezkoek baino gehiago kontsumitzen zuten.

	SANTURTZIKO AZTERLANA				ESTUDES 2021	
	G	G	E	E	G	E
	2019	2023	2019	2023	2021	
BIZITZAN INOIZ	26	13,4	27,6	24,4	34	33
AZKEN 12 HILABETEOTAN	26	12,9	21,1	17,3	25,9	27,3
AZKEN HILEAN	15,7	7,3	12,1	9,2		

Kontsumoaren batez besteko adina

Kalamua kontsumitzeen hasteko batez besteko adinak apur bat gora egin du 2023an (16,6 urtetik 14,7ra), sexu bietan antzeko proportzioan. Aurretiaz azertu diren substantziekin alderatuta, gazteak beranduxeago hasten dira kalamua kontsumitzen.

	SANTURTZI		ESTUDES 2021
	2019	2023	
Hasteko adina	14.6	14.7	14,7

Arriskuaren pertzepzioa

Kalamua asteburuan kontsumitzearen arriskuaren pertzepzioaz (noizbehinkako kontsumoa) ondorioztatu da igo egin dela “inongo arazorik ez dagoela” uste dutenen portzentajea, % 8tik % 12ra hain zuzen. Hala ere, kalamuaren kontsumoak arazo nahikotxo/asko ekar ditzakeela uste dutenen portzentajea ere igo da, 2019an %62,7koa zen, 2023an, berriz, % 75ekoa.

	Guztira 2019	Guztira 2023
Arazorik ez	8	12.2
Arazo nahikotxo/asko	62,7	75

Eguneroko kontsumoak dakarren arriskuaren pertzepzioak apur bat egin du gora 2019ko azterlanarekin alderatuz.

	Guztira 2019	Guztira2023	ESTUDES 2021
Arazo nahikotxo/asko	85,3	86,8	84,4

Eta sexuz banatuta aztertuz gero, ikusiko dugu gora egin dutela bai arazorik ez dakarrela eta bai arazo nahikotxo/asko ekar ditzakeela uste dutenen taldeek. Eraitza hori atera da nesken zein mutilen taldeetan, nahiz eta neskek gehiago atzematen duten.

	SANTURTZIKO AZTERLANA			
	G'19	G'23	E'19	E'23
Arazorik ez	4.4	11.7	3.3	9.1
Arazo nahikotxo/asko	81	83,3	89,3	90,4

Substantzia eskura izatea

Substantzia lortzeko erraztasunaz, esan daiteke ez dagoela aldaketa handirik, 2019an % 51,3k uste baitzuten “Substantzia lortzea nahiko edo oso erraza zela” eta 2023an % 52,4k zuten iritzi hori.

	Guztira 2019	Guztira 2023	ESTUDES
Oso zaila/zaila	35,4	47,7	
Oso erraza/erraza	51,1	52,4	76
Ez dakit	13	--	

Kontsumoa eteteko asmoa

Azpirarratzekoa da kalamua kontsumitzen dutenen % 35,5ek inoiz pentsatu dutela kontsumoa etetea, edo saiakera egin dute hala egiteko. Emakumezkoak dira oraingo honetan gehiagotan saiatu dienak: nesken % 33,3k horrela adierazi dute, mutiletan, berriz, % 11,1ek.

	Guztira 2023	Gizonak 2023	Emakumeak 2023
Aldez aurretik planteatu	64.5	77.8	56.3
Planteatu	10.5	11.1	10.4
Gauzatu	25	11.1	33.3

Familiaren jarrera kalamuaren kontsumoarekiko

Tabakoarekin gertatu bezala, gora egin du seme-alabei kalamua kontsumitzea debekatzen dien gurasoen ehunekoak. Alkoholarekin, ordea, kontrakoa gertatzen da, gurasoen malgutasuna handiagoa da-eta arlo horretan.

	Aita 2019	Aita 2023	Ama 2019	Ama 2023
Ez dit uzten	87.2	89.3	88.7	91.1

HIPNOSEDANTEAK

Hipnosedanteen kontsumoaren prebalentzia honakoa da: % 11,2k "Bizitzan inoiz" denbora-tartearen alde egin dute, % 7k "Azken 12 hilabeteotan" aukeratu dute eta % 4,9k "Azken hilean".

	SANTURTZI	ESTUDES
DENBORA TARTEA	Guztira 2023	2021
BIZITZAN INOIZ	11.2	19.6
AZKEN 12 HILABETEOTAN	7	13.6
AZKEN HILEAN	4.9	7.5

Eta kontsumoen prebalentzia sexutan banatuta aztertzen badugu, konprobatuko dugu mutilek neskek baino hipnosedante gehiago hartzen dutela, mutiletan % 5,6k kontsumitu dutela adierazi baitute, eta nesketan, % 4,6k.

	SANTURTZI		ESTUDES 2021	
	G	E	G	E
DENBORA TARTEA	2023	2023	2021	
BIZITZAN INOIZ	10,1	12,2	15,3	24,1
AZKEN 12 HILABETEOTAN	7,9	6,6	9,7	17,6
AZKEN HILEAN	5,6	4,6	5	10

Hipnosedanteak errezetarekin edo errezetarik gabe hartu diren prebalentziak, alde nabariak daude mutil eta nesken artean. Nesken % 66,7k hipnosedanteak medikuak errezetatuta hartzen dituzte, mutiletan berriz, % 61,1ek errezeta barik egiten dute.

	Guztira 2023	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Errezetarekin	55.8	38.9	66.7
Errezetarik gabe	44.2	61.1	33.3

EDARI ENERGETIKOAK

Jakin nahi izan dugu kafeina asko duten edari energetikoen kontsumo maila zein den (Red Bull, Monster eta beste batzuk). Emaitzak aztertuta, ondorioztatu da edari horien kontsumoa nahiko zabala dela, izan ere, ikasleen % 45,35ek kontsumitu dituzte azken hil honetan.

	SANTURTZI	ESTUDES
	Guztira 2023	2021
BIZITZAN INOIZ	78,4	
AZKEN 12 HILABETEOTAN	66,1	
AZKEN HILEAN	45.3	44.8

Mutilen artean kontsumoaren prebalentzia nesken artekoa baino altuagoa da, % 55,9 eta % 35,3, hurrenez hurren..

	SANTURTZI 2023		ESTUDES 2021	
	G	E	G	E
AZKEN HILEAN	55,9	35,3	50,7	39

TEKNOLOGIEN ERABILERA

Internet denek erabiltzen dute asko, ia ez dago alderik neska eta mutilen artean.

Teknologiak erabiliz emandako ordu-kopurua			
	Sexua		
	Guztira 23	G 23	E 23
1	1.8	3.9	-
2	7.6	7.8	7.6
3	12.5	12.3	13.2
4	27.3	24	31
5	15.6	15.1	14.2
6	12.2	14	11.2
7	6	3.4	8.6
Más de 8	16.9	19.6	14.2

Teknologien erabilera sexuz banatuta aztertzen badugu, ikusiko dugu ez dagoela alde handirik.

GIZONENZKOAK	0 ordu	Ordu 1-2	3-4 ordu	5-6 ordu	7 ordutik gora
Eskolako lanak	7.8	63,7	12,3	4,4	11,7
Sare sozialak	5	61,5	26,3	5,6	1,1
Jolasak	35.8	31,3	2,3	3,4	2,2
Bideoak/serieak...	11.7	68,7	14	3,9	1,7
Hitz egin, bideo-deia, WhatsApp-a...	33.5	54,2	8,4	2,3	1,7

EMAKUMEZKOAK	0 ordu	Ordu 1-2	3-4 ordu	5-6 ordu	7 ordutik gora
Eskolako lanak	2.5	53,3	29,4	10,7	4
Sare sozialak	2	50,8	32,5	8,1	6,6
Jolasak	54.8	43,1	1	1	0
Bideoak/serieak...	12.2	67	14,2	4,6	2
Hitz egin, bideo deia, WhatsApp-a...	21.8	57,4	11,7	5,6	3,5

Sakelakoa etxean uzten ahalegindu eta lortu duten galdetuta, % 41,7k inoiz ahalegina egin dutela esan dute, gehienbat emakumeek egin dute saiakera (% 47,2 ahalegindu dira eta gizonen % 35,2).

Inoiz saiatu zara sakelako telefonoan etxean uzten eta ez duzu lortu? (%)						
	Guztira 19	Guztira 23	G 19	G 23	E19	E23
Inoiz ez	51.3	58.3	71.8	64.8	51.5	52.8
Noizean behin	25.2	31	19.4	27.9	30.5	33.5
Sarritan	--	7.3	--	4.5	-	10.2
Beti	13.5	3.4	8.7	2.8	18	3.6

ONDORIOAK


- Hiru substantziak kontsumitzen hasteko **batez besteko adina** egonkorra da. Tabako eta alkoholaren kasuan 13,9 urterekin; kalamuaren kasuan, berriz, 14,7 urterekin.
- 2019ko azterlanean lortutako datuekin alderatuta, hauxe da **kontsumoen prebalentzia**:
 - Tabakoa**: Mutilen kasuan behera egin du hiru denbora-tarteetan eta nesken kasuan gora.
 - Alkohola**: Bien kasuan, mutilen zein neskenean, gora egin du azken hilean.
 - Kalamua**: Behera egin du hiru denbora-tarteetan.
 - Hipnosedanteak**: % 4,9k aitortu du azken hilean hartu izana.
- Kontsumoen prebalentzia sexuen arabera**: Ikus daiteke nesken kontsumoaren prebalentzia mutilena baino handiagoa dela:
- Azken hilabeteen, neskek mutilek baino tabako gehiago kontsumitu dute (% 25,4 eta % 10,1 hurrenez hurren), eta alkohol gehiago ere kontsumitu dute (% 41,1 eta %32,4 hurrenez hurren). Eta kalamuaren kontsumoan, aurreko ikasketetako joerak hautsiz,

neskek mutilek baino zertxobait gehiago kontsumitu dute (% 9,2 eta % 7,3 hurrenez hurren).

- **Eskura izateko atzematen den erraztasuna:** Gora egin du tabakoa eta alkohola lortzeko erraztasunaren aukeraren pertzepzioak. Supermerkatuak eta dendak dira errazago erosteko tokiak, eta ondoren norberaren etxea: hipermerkatuak igo dira (2019an % 17,7 eta 2023an % 26,9) eta supermerkatuak (% 34,7 2019an eta % 60,5 2023an).
- **Atzematen den arriskua:** Tabakoaren arriskuaren pertzepzioak behera egin du apur bat, alkoholarenak eta kalamuarenak, berriz, zertxobait gora.
- **Kontsumoa eteteko asmoa:** Tabakoa erretzen duten ia erdiek aitortu dute erretzeari uzten ahalegindu direla. Eta kalamuaren kasuan, erretzaileen laurdenek kontsumoa eteten saiatu direla adierazi dute. Substantzia bietan emakumezkoak gizonezkoak baino gehiagotan saiatu dira.
- **Interneten erabilera** oso zabaldua dago, eta ez dago mutil eta nesken arteko alde handirik. Ikasleek sare sozialetan, bideoak eta serieak ikusten ematen dute denbora gehien.
- **Gurasoen malgutasuna:** Nabaria da igoera gurasoek seme-alabek alkohola edateko erakusten duten malgutasun-mailan.

4.3.- HERRIKO HEZKUNTZA, GIZARTE, OSASUN ETA UDAL ARLOETAKO KIDEEN IRITZI ETA EKARPENAK

Errealitateari lotutako diagnostiko bat egiteko, Santurtziko ikasleek kontsumoei eta teknologien erabilerari buruzko datuak lortu ez ezik, adikzioen prebentzioan zerikusia duten eragileen iritzia eta ekarpenak ere jaso nahi izan ditugu



Horretarako, partaidetza-prozesu bati ekin eta, eskematikoki, egindako urratsak eta haren edukik azpimarragarriena azalduko ditugu hurrengo lerrootan:

PARTE-HARTZAILEAK

Udal arloak

Zinegotziak eta Kultura-, Herritarren Seguratasun- eta Hirigintza-Arloak, Berdintasun Zerbitzua eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak.

Hezkuntza Arloa:

Hezkuntza Zentroak: Axular BHI, Kantauri BHI, CEIP Itsasoko Ama HLHI, CEIP Las Viñas HLHI, CEIP Emilia Zuza LHTI, Santa Eulalia HLBHIP, San Francisco Javier HLBHIP, San José Carmelitas HLBHIP, Santurtzi OLHUI

Guraso Elkartek: Las Viñas, Axular, San José de Carmelitas

OSASUN ARLOA: Erizaintza-zerbitzua eta Kabiezeseko osasun-etxeko gizarte langilea.

ELKARTEAK: KAKUL Kabiezesko Kultur Elkartea, URBEGI eskaut taldea, Txikitxu, Ekintza Aluviz, Peña Athletic FK, Dinamo San Juan FK., Santurtziko Football-Flag Coyotes, Atseginez, Las Viñaseko jai-batzordea.

Jarraian, **eragile sozialek** udalerriko **kontsumoen egoerari buruz duten iritzia** eta horri konponbidea jartzeko egin dituzten **proposamenak** zehaztuko ditugu:

IRITZIAK

- Gehienek nabarmendu dute gizartean gero eta onarpen handiagoa dutela eta arintasun handiagoz hartzen dela drogen erabilera, bereziki alkoholarena eta kalamuarena. Kezka sortzen du adingabeek alkohol gehiegi edateak, bereziki jai-eremuetan eta ospakizunetan.
- Gizartearen onarpen horrekin batera, adin txikiek alkohola eta kalamua **eskuratzeko erraztasun handia** dute. Alde horretatik, alde batetik, saltokiek adin txikiei saltzeko debekua betetzeko orduan duten erantzukizuna nabarmentzen da; eta bestetik, helduek gazteenen aurrean eredu gisa duten erantzukizuna.
- Eskura izateaz, berriz, udalak adin txikiei alkohola hornitzeari eta saltzeari buruzko **araudia betearaztearen garrantzia** azpimarratzen da, eta udalerriko inauterietan eta jaietan egindako kanpainen izan zuten eragin positiboa nabarmentzen. Ildo horretan adierazi da batez ere jaietan eta jai-gunean egin behar dela lan kontsumoak prebenitu eta jokaera matxistak saihesteko.
- Horrez gain, kezkatzen du ikasleek eskolen inguruan kalamua erretzeak. Gainera esku-hartzerik ez egiteak inpunitate sentrazio handia dakar.
- Beharrezkoa da **beste gazte batzuek** prebentzio-ekintzetan **laguntzea**, gazteak izanik, hizkuntza berbera erabiltzen baitute eta gertukoagoak izan baitaitezke.
- Bestalde, positibotzat jo da inpaktua eragiten duten herritarren testigantzak.
- Onartua izateko gogoia eta besteen berdina izan nahia arrisku-faktoretzat jotzen dira, kontuan hartzekoak eta landu beharrekoak.
- Uste da zenbait substantzien kontsumo-eredu jakinek edo teknologien erabilerak **ihesbide emozional bati erantzuten diotela**, pandemiaren osteko egoeran dagoen ziurgabetasuna eta egonezin emozionala handia da eta.
- Internetekin lotuta, irakasleek nabarmendu dute **indarkeriaren kontsumoa**, orokorrean, eta ikasleek Internetetik jasotzen duten informazioarekiko erakusten duten **jarrera akritikoa**.
- Teknologien erabilerari dagokionez, kezkarria da **gero eta gazteago hastea** gailuak erabiltzen. Hezkuntzako eragileek azpimarratu dute bereziki kontrolaren galerak eta

ikasleek frustrazioa izateko gaitasun txikiak kezkatzen dituztela. Gainera, batzuetan familiek ere zailtasun handia erakusten dute seme-alabek arau minimo batzuk betearazteko orduan.

- Etxean adikzioen bat duen kideren bat duten familiei dagokienez, nabarmentzeko da babesa eta laguntza eman beharra, eta iradokitzen da egoera berean egon diren beste familia batzuek osatutako familia-taldeak sortzea interesgarria izan litekeela, autolaguntza gisa funtzionatu dezaten.
- Joko- eta apustu-etxeek gazte eta helduen artean arazo asko sortzen dituelako ustea nahiko zabalduta dago.
- Pandemiaren ostean, atzeman da gazteek gutxiago erabiltzen dutela lonjen espazioa sozializatzeko. Errealitate hori landu eta gaur egun noraino heltzen den jakitea oso garrantzitsua da
- **Aisialdi osasungarria** izatea babes-faktorea dela uste da substantzien kontsumoa gutxitzeko, eta ildo horretan aipatu da herrian baliabide gutxi daudela gazteek alkoholaren kontsumoarekin lotuta ez dauden espazio eta uneak eskura izateko.
- Kirola ere babes-faktoretzat jotzen da, baina 12 urtetik gora gazteek gero eta gutxiago praktikatzeko dute, are gutxiago neskek. Futbolaz gain (kirol hegemonikoa), gazteei *kirol anitza* eskaintzea proposatzen da eta kirol-klubak futbola, norgehiagoka aritu barik, praktikatu nahi dutenentzat ere egotea erabilgarri.
- Jai-batzordeekin eta elkarteekin ere lan egitea proposatzen da, **jai osasungarriak** bultzatze aldera.
- Hezkuntza-eragile guztiek eta gizarte-eragileek prebentzio-zerbitzuak egiten dituen ekintzak ezagutzen badituzte ere, nabarmendu da ezagutza hori zabaltzea ahalik eta kolektibo eta herritar gehienengana heltzeko beharra.
- Osasun-arloko eragileek osasun-etxeetan eta, baliabideen arabera, osasuna sustatzeko programak lantzen dituzten hezkuntza-zentroetan egiten diren jarduerak nabarmendu dituzte, ildo horretan, **koordinazioa** egon beharra azpimarratu dute, edo behintzat, sistema bakoitzak eskaintzen duen berri izatea eskaintza bikoitzik egon ez dadin edo denboran bi ekintza berdinek bat egin ez dezaten.

PROPOSAMENAK

- Substantzien kontsumoaren eta teknologien erabileraren arriskuak **prebenitzeko eskola-programak mantentzea**. Zehatzago esanda, honako hau proposatzen da:
